En tiempos difíciles,
Ama El Salto. Odia el fascismo.
Suscríbete y llévate una totebag con ilustración de Celsius Pictor en homenaje a la Comuna de París

REVOLUCIÓN RUSA

Ikas dezagun maitatzen, kamarada Kollontai

Errusiarraren bizitzak eta obrak inspirazio iturri izaten jarraitzen dute, besteak beste, gure maitasun harremanak birpentsatzeko

Erle langileen amodioak | Egilea: Aleksandra Kollontai | Itzultzailea: Aroa Uharte | Igela eta Erein, 2020 ARGIA

Amaia Zapiain Egaña
13 ABR 2021 06:29

Aleksandra Kollontai (1872-1952) errusiar iraultzaile, feminista eta ekintzailearen *"Erle langileen amodioak"* liburua euskaratu dute Aroa Uhartek eta Erein argitaletxeak . Kollontaik etengabe lan egin zuen gizarte aske eta justu bat eraikitzearen alde, eta modu aktiboan hartu zuen esku XX. mende hasierako une historiko esanguratsuenetan. Emakumeen autonomiaren aldeko borroka lehenetsi zuen beti, horrek Alderdi Komunistan eragin zizkion arazoak gorabehera. Letra larriz idatzitako Iraultza handiak aztertu eta egiten zituen bitartean, inoiz ez zuen gutxietsi egunerokotasuneko iraultza intimoen garrantzia. Aitzindaria izan zen bai marxismoa eta feminismoa uztartzeko ibilbidean, baita maitasunari buruzko kritika eta ikerketa feministan ere. Azken horri loturik, proposatu zituen ideia batzuk dakartzat gaur hitzotara, Kollontaik utzitako ondarea, zentzu zabalenean, iradokitzailea eta erabilgarria gertatuko zaigulakoan.

> ***"Kollontaik egindako ikerketen arabera, historikoki maitasunak gizateriaren interesen alde jardun du beti"***

Alde batetik, Kollontaik egindako ikerketen arabera, historikoki maitasunak gizateriaren interesen alde jardun du beti, eta idazleak maitasunaren alde sozial eta historiko hori nabarmentzen du. Bestetik, benetako maitasuna eta azalekoa bereizten ditu. Benetako maitasuna dohain sakon eta ia magikotzat dauka, "sentitzen duenaren arima handitzen eta aberasten duen indar sortzaile" handitzat. Kollontairen iritziz, birbideratu egin behar da maitasunaren berezko ahal hori, kolektibitatearen mesedetan. Izan ere, kapitalismotik eratorritako logika merkantilista, indibidualista eta egozentrikoak sexu-krisi sakon batera eraman du gizartea, eta gizabanakoa ez da gai hurkoa benetan maitatzeko, bere burua asetzeko merkantzia soil gisa ikusten duelako. Gizarte komunista bat ezartzeak ez du berez ekarriko sexu-krisi hau gainditzea; aitzitik, horretarako ezinbestekoa da gizartea guztiz aldatuko duen iraultza psikologiko bat gertatzea.

Iraultza psikologiko horren barnean, errotik aldatu behar da maitasun sentimenduari buruzko ikuskera zabalduena, hau da, burgesiaren interesen arabera sortua dena eta emakumea bereziki ahul eta mendeko izatera behartzen duena. Gizarte berri batek exijitzen du Kollontaik "emakume berria" deritzona, alegia, bere bizitzaren erdigunean maitasuna jarriko ez duen emakume askea, maitasuna "bere benetako nia ezagutzeko bitarteko" gisa erabiliko duena. Emakume berri horrek alde batera utzi beharko du kapitalismoak ezarritako karga hirukoitza
-langilea, etxekoandrea, ama-, eta autonomia ekonomiko eta psikologikoa lortu beharko du. Horretarako, hezkuntza, etxeko lanak eta zaintza lanak kolektibizatu beharko dira, edo Estatuari exijitu beharko zaio lan horien ardura hartzeko. Kollontaik, Sobieten gobernuan Herri Komisario gisa aritu zen bitartean, helburu horietara hurbiltzeko bidea ematen zuten gizarte politika zehatzak proposatu eta ezarri zituen.

> ***"Maitasun kamarada langileen arteko harremanetan presente zeuden balioetan oinarritua izan behar du, langileen arteko elkartasun espiritualetik eratorria"***

Halandaze, berak imajinatu zuen gizarte justu eta askerako behar den maitasun ereduari "maitasun kamarada" deitu zion. Maitasun horrek langileen arteko harremanetan presente zeuden balioetan oinarritua izan behar du, hau da, "langileen arteko elkartasun espiritual"-etik eratorria izan behar du, eta elkartasun sentimendu iraunkor eta kolektibista bati eutsi behar dio. Eredu horren arabera, bikote bateko kideek elkarren eskubideak aitortu eta kontuan hartu behar dituzte; gainera, elkar ulertzen ahalegindu eta elkar zaindu behar dute. Bikotekide bakoitzak "sostengu irmoa" izan behar du bestearentzat. Hori bai, beti komunitatearen interesak lehenetsi beharko dituzte. Maitasun eredu hori epe jakin baterako pentsatu zuen Kollontaik; izan ere, gizarte komunista batean jaioko zen maitasun hura ezin zen oraindik zehaztu, hain izango baitzen indartsua eta ederra. Burgesiaren ideologiaren pean bikotearen esparrura mugatuta egona zen kohesio espiritual eta morala giza harreman eta arlo guztietara zabalduko zen, eta "kolektibismo espiritual" horrek, azkenik, erabat garaituko zuen kapitalismoan bizitako "harropuzkeria indibidualista".

Litekeena da gaur egun Kollontairen ideia batzuk utopikoegiak iruditzea. Aspaldi utzi genion maitasunaren potentzial subertsiboa hainbesterainokoa dela sinesteari. Dena dela, errusiarraren bizitzak eta obrak inspirazio iturri izaten jarraitzen dute. Lagungarri zaizkigu, besteak beste, gure maitasun harremanak birpentsatzeko eta gure egoera sozio-historikoaren eta gure sentimenduen arteko loturak aztertzeko. Ziurtzat jotzen ditugun egia asko auzitan jartzera behartuko gaitu iraultzaile honen ondareak.

MÁS INFORMACIÓN
Este marzo aprovecha las ventajas de ser suscriptora de El Salto

Archivado en: Feminismos · Marxismo · Revolución rusa

Ama El Salto. Odia el fascismo.

Somos un medio que aspira a normalizar llamar nazi a un nazi sin ser tildados como la punki de la clase.

Queremos mucho, y aunque nuestra cabeza sea dura, la pared es gruesa. Suscríbete a El Salto y seguiremos contando derrotas con esperanza de que algún día se conviertan en victorias.

En este abril antifascista, para animarte a dar El Salto, lanzamos esta oferta: **suscríbete y llévate de regalo una totebag de alta calidad con ilustración de Celsius Pictor.** Más de 500 personas os habéis suscrito en los últimos dos meses pero aún no hemos llegado a los 10.000 socios que necesitamos. Respalda un medio antifascista.

Suscribirme a El Salto · Más información

RELACIONADAS

David Graeber sobre el movimiento kurdo y el pensamiento de Öcalan (Parte III) — DAVID GRAEBER

Historia — El infinito regreso al futuro de la Comuna de París — JOSE DURÁN RODRÍGUEZ

SANTI FERNÁNDEZ PATÓN — *El rechazo al trabajo como cántico a la vida* — 5

0 Comentarios

Comentar

EL SUPORT MUTU — publicidad
¡Empieza a rodar con el seguro ético! — publicidad
HERRAMIENTAS PRÁCTICAS RELACIONES SANAS CURSO ONLINE integracionrelacional.com — publicidad

DESTACADAS



Elecciones Madrid 4M

La batalla de la movilidad: la ciudad de los coches frente a un modelo diferente

PABLO RIVAS

Contaminación Cómo conseguir un aire limpio sin parar la actividad económica

La revuelta escolar exige a Almeida un plan contra la contaminación en el entorno de los colegios

Precariedad en alta mar — Derechos laborales por la borda: 80 horas semanales siete días a la semana en los megacruceros — MARTÍN CÚNEO

Encarcelada en Israel — Unidas por Extremadura pide a Vara mediar en la liberación de la cooperante Juana Ruiz — REDACCIÓN EL SALTO EXTREMADURA

Elecciones Madrid 4M — ¿Quién se beneficia de los bajos impuestos de Madrid y cuánto dejan de pagar? — YAGO ÁLVAREZ BARBA, KIKE CASTRO — 2

Vacunas — PSOE, PP, Ciudadanos y Vox votan en el Europarlamento contra la suspensión de las patentes del Covid-19 — PABLO 'PAMPA' SAINZ — 2

Elecciones Madrid 4M — En la Comunidad de Madrid la lista para una plaza de atención temprana supera los 4 años de espera — PABLO 'PAMPA' SAINZ — 1

Subcontratas precarias — Los sindicatos de Correos denuncian la falta de inversión y de protocolos de seguridad tras las amenazas de muerte — REDACCIÓN EL SALTO

Transporte de mercancías — Trabajadores de Grupo Alonso van a la huelga para exigir que se cumpla el convenio colectivo — EL SALTO PAÍS VALENCIÀ

NEREA FERNÁNDEZ — *En el norte de Irlanda* — 1

LOS LIBROS SON DESCONTRÓL — publicidad

ÚLTIMAS

Repartidores — El TSJCV falla a favor de la relación laboral de los riders — EL SALTO PAÍS VALENCIÀ

Bizkaia — Ordenan el desalojo del gaztetxe de Zornotza, donde vive una familia con tres niños pequeños — GESSAMÍ FORNER — 1

El Salto Radio — Carmen G, de la felicidad infantil a la sordidez de un colegio de monjas — JULIA GAS, RAMÓN FERRER, RADIO ALMENARA

Justicia — El Supremo confirma la condena a Juana Rivas por sustracción pero reduce la pena de cinco a dos años — REDACCIÓN EL SALTO — 6

Gasto militar — El gasto militar mundial aumenta un 2,6% durante la pandemia — GESSAMÍ FORNER — 3

RECOMENDADAS

Elecciones Madrid 4M — Iniciativas ciudadanas trabajan para movilizar el voto contra las derechas el 4M — CHRISTIAN MARTÍNEZ — 8

Elecciones Madrid 4M — Ayuso utiliza la plataforma EducaMadrid para hacer campaña con los niños — PABLO 'PAMPA' SAINZ — 6

Badajoz — Piden más de tres años de prisión para el autor de la muerte de un lince ibérico — REDACCIÓN EL SALTO EXTREMADURA — 5

RICHARD CROWBAR — *Punto de inflexión* — 4

Derechos Humanos — Colectivos se abren a fusionar en un texto las leyes trans y LGTB como pidió el PSOE — PATRICIA REGUERO RÍOS — 2

Elecciones Madrid 4M — Migrantes movilizan a otros migrantes a la participación política este 4M — SUSANA ALBARRÁN MÉNDEZ

Extrema derecha — El autor de la carta de amenaza a la ministra de Turismo simpatiza con Vox — REDACCIÓN EL SALTO — 11

Empresas — El vivero empresarial de Juan Roig impulsa el modelo de negocio de Glovo — REDACCIÓN EL SALTO

CANAL DE TELEGRAM EL SALTO
Pikara online magazine — publicidad
Nortes Centradas en la periferia — publicidad

Somos un medio que aspira a normalizar llamar nazi a un nazi.

En este abril antifascista, para animarte a dar El Salto, lanzamos esta oferta: **suscríbete y llévate de regalo una totebag de alta calidad con ilustración de Celsius Pictor.** Más de 500 personas os habéis suscrito en los últimos dos meses pero aún no hemos llegado a los 10.000 socios que necesitamos. **Respalda un medio antifascista.**

Respaldar EL SALTO

¿Suscrito/a? Regístrate y comenta sin moderación